

## UDAKO IGERILEKUETARAKO AURRETIKO HITZORDUA

COVID-19tik eratorritako baldintzatzaileen ondorioz, aurten aldatu egingo da udako jolas-erabilerako igerilekuetan jarduteko modua.

Edukiera murriztearen ondorioz, kirol-instalazioetako esparru osoan pertsonen arteko distantziari eusteko hiru neurri jarriko dira martxan, ezarritako osasun-betebeharrei erantzun ahal izateko.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da udal kiroldegiko igerilekuak Elizaldeko igerileku ludikoen osagarri gisa funtzionatuko duela eta, beraz, Elizalden abonatuak dauden pertsonak bakarrik erabili ahal izango dituztela.

Erabiltzaileen arteko txandakatzea sustatuko da, eguneko bi erabilera-txanda ezarriz: bata goizekoa (11.00-15.15) eta bestea arratsaldekoa (16.15-20.30). Bi txanden artean geratzen den tarte instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko baliatuko da, horrela, osasun-agintaritzak ezarritako irizpideak betez.

Instalazioetarako sarreretan pilaketarik gerta ez dadin, instalazioen erabilgarritasuna zein den jakin ahal izateko eta instalazioetan alde aurretik leku bat erreserbatzeko aukera izateko, instalazioak erabiltzeko alde aurretik hitzordua eskatzeko beharra izango da denboraldi honetako berrikuntza handienetako bat.

Horrela, instalazioko abonatuak aurretiko hitzordua [elorrrio.miclubonline.net](http://elorrrio.miclubonline.net) plataforma birtualaren bidez edo 946821027 telefonoaren bidez (11:00etatik 20:00etara) eskatu ahal izango dute baina, ahal den neurrian, jarraian zehazten den bide telematikoa erabiliz egitea gomendatzen dugu. Abonatuak ez diren pertsonak ere instalaziora joateko aukera izango dute eguneko sarrera erosita. Hauke ere alde aurretiko hitzordua eskatu beharko dute aurretik aipatutako telefono zenbakira deituz.

### Plataforma birtuala:

Bide honen bidez erreserba egiteko, beharrezkoa da abonatu izatea eta posta elektronikoa kiroldegiko datu-basean sartuta izatea. [Elorrrio.miclubonline.net](http://elorrrio.miclubonline.net) helbidean gaudela, plataforman alta emateko eta mugikorrerako App bat deskargatzeko aukera izango dugu.

Elorriko Kiroldegia Nire Kirolgunea

---

**Saioa hasi**

**Erabiltzaile izena \***

**Pasahitza \***

**Datozen gidatutako jarduera**

**Gaur**


16:15 - 20:30  ELIZALDEKO IGERILEKUKO E...

16:15 - 20:30  KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ...

**Asteazkena 17/06/2020**

11:00 - 15:15  ELIZALDEKO IGERILEKUKO E...

11:00 - 15:15  KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ...



**Izena eman**

**App-a deskargatu**

**Eskuragarri dauden erreserbak**


FRONTON CANCHA SQUASH Beste batzuk

Ez dago kirol honen pista erreserba.

<Aur ekaina 2020 Hur>

al	ar	az	og	ol	lr	ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Aplikazioan alta emateko, "Pasahitza gogoratu" sakatu behar dugu; barruan, helbide elektronikoa eskatuko digu eta hori idatzitakoan sarbide-gakoa emango digu. "Erabiltzaile izena" gure bazkide-kodea da, txartelean agertzen dena. Behin sarbide-gakoa edukita, aldatu eta nahi duguna jarri ahal izango dugu.



Saioa hasi

Erabiltzaile izena \*

Pasahitza \*

Pasahitza gogoratu

Sartu

Izena ematen dugunean, aplikazioa mugikorrerako deskargatzeko aukera izango dugu. "App-a Deskargatu" botoian sakatuz gero, QR kode bat agertuko da eta mugikorraren kamerarekin enfokatzera App-a deskargatzeko lekura eramango gaitu zuzenean.



App-a deskargatu

FRONTON | CANCHA

Ez dago kirol honen p...

Nire Online Kluba

Deskargatu gure aplikazioa eta bere ezaugarriak erabiltzen hasteko QR kodea eskaneatu

DISPONIBLE EN Google play

Disponible en App Store

j95FP3RM00

←

Ikastaroak eta ira...

Edozein instalaziotan lekua erreserbatzeko, interesatzen zaigun txanda aukeratu beharko dugu pantailaren eskuinaldean, "Info" sakatuta. "Kontsultatu egutegi osoa" aukera ere badaukagu eskuragarri dauden erreserben beste ikuspegi bat izateko.

**Datozen gidatutako jarduera**

**Gaur**

16:15 - 20:30 ■ ELIZALDEKO IGERILEKUKO E... info

16:15 - 20:30 ■ KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ... info

**Asteazkena 17/06/2020**

11:00 - 15:15 ■ ELIZALDEKO IGERILEKUKO E... info

11:00 - 15:15 ■ KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ... info

**Egitegi osoa ikusi**



Erreserbatu nahi dugun txanda eta instalazioa hautatuz horri dagozkion ezaugarriak ikusteko aukera izango dugu, besteak beste ordutegia edo oraindik ere libre dagoen edukiera. "Erreserbatu" botoia sakatuko dugu erreserba amaitzeko.

**Eka 15 — 19 2020**

	Astelehena 15/06	Asteartea 16/06	Asteazkena 17/06	Osteguna 18/06	Ostirala 19/06
07:00					
08:00					
09:00					
10:00					
11:00	11:00 - 15:15 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	11:00 - 15:15 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	11:00 - 15:15 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	11:00 - 15:15 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	11:00 - 15:15 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA
12:00	11:00 - 15:15 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	11:00 - 15:15 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	11:00 - 15:15 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	11:00 - 15:15 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	11:00 - 15:15 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /
13:00					
14:00					
15:00					
16:00	16:15 - 20:30 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	16:15 - 20:30 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	16:15 - 20:30 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	16:15 - 20:30 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA	16:15 - 20:30 ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA
	16:15 - 20:30 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	16:15 - 20:30 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	16:15 - 20:30 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	16:15 - 20:30 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /	16:15 - 20:30 KIROLDEGIKO IGERILEKUKO ERRESERBA (JUDAKO ERABILERA) /

**ELIZALDEKO IGERILEKUKO ERRESERBA / RESERVA PISCINA ELIZALDE**

■ ACTIVIDADES DE VERANO

**Kokalekua**  
ELIZALDEKO IGERILEKUKO  
Lekuak 450 erabilgarririk 450

**Iraupena**  
17-06-2020  
11:00 - 15:15



COVID-19ak eragindako ondorioak direla eta, aldez aurretik erreserba bat egin behar da instalazioaz gozatu ahal izateko. Bi ordu-tarte daude (goizez eta arratsaldez) aukeratu ahal izateko. Txanda bakoitza amaitu baino 15 minutu lehenago, instalaziotik irten beharko da, garbitu eta desinfektatu ahal izateko.

Debido a las excepcionales circunstancias provocadas por el COVID-19, es necesario realizar una reserva previa para poder disfrutar de la instalación. Existen dos franjas horarias (mañana y tarde) para poder elegir. 15 minutos antes de terminar cada franja se deberá abandonar la instalación para poder proceder a su limpieza y desinfección.

Bertan behera utzi **Erreserba**

Aurrekoari dagokionez, gaineratu behar da bi baldintza garrantzitsu egongo direla erreserba egiteko orduan:

- Erreserba gehienez 24 ordu lehenago egin ahal izango da.
- Ezin izango da erreserba berri bat egin aurrekoa baliatu arte; hau da, erreserba berri bat egin ahal izateko, eginda dugun erreserba amaitu beharko da.

Erabileraz-azugarri horiek guztiak udako denboraldian zehar aldatu ahal izango dira osasun-irizpideek edo inplikaturako instalazioen erabileraren eraginez.

Azkenik, kirol instalazioen erabiltzaileei gogorarazi nahi dizuegu COVID-19 pandemiaren ondorioz sortutako baldintzengatik uda berezi baten aurrean gaudela eta kirol instalazioez

gozatzeko modua egokitu beharko dugula. Horretarako, zuen laguntza eskatu behar dizuegu osasun-agintariek ezarritako betebeharrak betetzeko.

Horregatik, Elorrioko Udaletik egoera honen aurrean zuen pazientzia eta ulermena eskertu nahi dizuegu eta, bide batez, barkamena eskatu nahi dizuegu aldaketa horiek sor diezazkizueketen eragozpenengatik.